

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2024IPLE0011

Eguna: 2024-10-29

Ordua: 19:00 – 19:55

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Aztergaiak

- 1.- 2024ko urriaren 1eko akta onartzea.
- 2.- Kiroldegia birgaitzeko mailegua onartzea.
- 3.- Astigarragako Galtzaur Kanean DBH Eraikineraren obra-baimenaren hobari-eskaera onartzea.
- 4.- Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean, (KALD-0009) onartzea.
- 5.- Plangintzako Aholku Batzordearen araudiaren aldaketa onartzea.
- 6.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua Astigarragan, (etxeetako zerbitzua eta Marisa Garaño adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuen erabiltzaileentzat) onartzea.
- 7.- Produkzio iturri berriztagarri eta pertsona zein bitanleriarentzako seguruen bidez, Astigarragako Udala titularra den kontsumo puntu desberdinetarako energia elektrikoa hornitzea, onartzea.
- 8.- EH Bilduren adierazpen instituzional proposamena, autobusaren zerbitzu publikoa indartu eta zabaltzeko, onartzea.
- 9.- Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkezturtako mozioa, Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldekoa, onartzea.
- 10.- Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkezturtako mozioa, Covid-19aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren aldekoa, onartzea.
- 11.- Informazio, galdera eta eskariak.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Esan-eginak eta erabakiak

1.- 2024ko urriaren 1eko akta onartzea.

Esti, Manex eta Patxi zinegotziak abstenitu egin dira aurreko bileran ez zirelako egon. Gainerakoek, berriz, alde bozkatu dute. Beraz, akta onartu egin da.

2.- Kiroldegia birgaitzeko mailegua onartzea.

Alkateak azaldu du uztailen mailegua eskatzea onartu ondoren, Aldundiari baimena eskatu zitzaioela, eta irailean kreditu aldaketa izapidetu dela. Ondoren, maileguaren baldintza administratiboen nondik norakoak azaldu ditu eta ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

***Lehena.-** Kiroldegia birgaitzeko obrak finantzatzeko finantza-entitate batekin mailegua kontratatzeko baldintza-pleguak onartzea.*

***Bigarrena.-** Lizitazio bidezko esleipen prozedurari hasiera ematea.*

María zinegotziak hitza hartu eta adierazi du aurrekoan gai honekin egin zuten bezala, oraingoan ere abstenitu egingo direla, ez daudelako ados horrelako zenbatekoa duen mailegu bat eskatzearekin.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EH Bildu kideena eta Udal talde euskal sozialistarena) eta 3 abstentzioekin (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena).

3.- Astigarragako Galtzaur Kalean DBH Eraikineraren obra-baimenaren hobari-eskaera onartzea.

Alkateak adierazi du Jaurlaritzak obra-baimena eskatu duela, baita horren zergaren hobaria aplikatzea ere. Eta azaldu ondoren Ordenanza Fiskalak azken horiek zein kasuetarako aurreikusten dituen, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

***Lehena.-** Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Astigarragako Galtzaur kalean egin behar duen obra, DBH eraikina, interes bereziko edo udal onurakoa izendatzea.*

***Bigarrena.-** 2023ko abenduaren 27ko GAOn argitaratutako Zerga Ordenantzen "Eraikuntza, instalazio eta obraren gaineko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskalaren" 19. artikuluan xedatzen duenaren arabera, %95eko hobaria ezartzea DBHko eraikinaren eraikuntzak, instalazio eta obraren zergan.*

***Hirugarrena.-** Erabaki honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari eta Udaleko zerga-bilketa departamentuari ematea.*

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

Ondoren, alkateak adierazi du obra-baimena eman ondoren, Jaurlaritza obraren gauzatze-proiektua idazten hasiko dela eta obra-kontratua esleitu duela.

4.- Kreditu aldaketa, kreditu transferentzia modalitatean, (KALD-0009) onartzea.

Alkateak kreditu aldaketa egitearen arrazoiak eman ondoren, ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK	948.298,61	60.000,00	888.298,61
	GUZTIRA	948.298,61	60.000,00	888.298,61

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	218.046,95	25.000,00	243.046,95
6	INBERTSIO ERREALAK	3.300,00	35.000,00	38.300,00
	GUZTIRA	221.346,95	60.000,00	281.346,95

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailletza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

5.- Plangintzako Aholku Batzordearen araudiaren aldaketa onartzea.

Alkateak aldaketa izapidetu beharraren arrazoaiak eman ondoren, hirigintza, etxebizitza, ingurumena eta mugikortasuna batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenengoa.- Astigarragako Udal Planeamenduari buruzko Aholku Batzordearen Araudiari hasierako onespina ematea.

Bigarrena.- Araudia 30 lanegunez jendaurrean jartzea, eta erabakia GAOn, iragarki-oholean eta Udalaren webgunean argitaratzea.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

6.- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua Astigarragan, (etxeetako zerbitzua eta Marisa Garaño adinekoentzako tutoretzapeko apartamentuen erabiltzaileentzat) onartzea.

Alkateak azaldu du lizitazio honetan enpresa bakarra azaldu dela, egun zerbitzua ematen duena, eta horrekin lan egin zela lan-hitzarmen berri bat onar zezaten, langileen lan-baldintzak hobetzeko. Ondoren, kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehenen.- Akordioaren hirugarren erabakian ezarritakoa betez, Astigarragako udalerrian etxeko etxeko laguntza-zerbitzuaren 1. lotea (etxeko etxeko zerbitzua), Arreta Zerbitzuak SL enpresari ESLEITZEA, zenbateko hauetan:

- Lanaldi arruntak: 26,40 euro/ordu (BEZik gabe)
- Jaiegunetako orduak: 29,22 euro/ordu (BEZik gabe)



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Bigarrena.- Akordioaren hirugarren erabakian ezarritakoa betez, Astigarragako udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren 2. lotea – hau da, “Marisa Garaño” tutoretzapeko apartamentuen erabiltzaileei laguntza-prestazioa – Arreta Zerbitzuak SL enpresari ESLEITZEA, 73.780,10 eurotan (BEZik gabe).

Hirugarrena.- Enpresa esleipendunak, kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, jarraian zehaztutako behin betiko bermeak jarri beharko ditu Udaleko Diruzaintza Sailean; halaber, agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zurretiko baldintzak egiaztatu, baldintza plegu administratiboan 25. klausulan adierazten den moduan:

1. Lotea: 30.012,18 euro.
2. Lotea: 3.689,01 euro.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

7.- Produkzio iturri berriztagarri eta pertsona zein bitanleriarentzako seguruen bidez, Astigarragako Udala titularra den kontsumo puntu desberdinetarako energia elektrikoa hornitzea, onartzea.

Alkateak kontratazio mahaiaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehena.- Akordioaren laugarren erabakian ezarritakoa betez, Astigarragako Udalaren titulartasuneko kontsumo-puntuei energia elektrikoa hornitzeko kontratuaren 1. lotea (argiteria publikoa) ESLEITZEA **Iberdrola Clientes SAU** enpresari – bera izan baita lote honetako lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, hain zuzen, 89 puntu.

Bigarrena.- Akordioaren laugarren erabakian ezarritakoa betez, Astigarragako Udalaren titulartasuneko kontsumo-puntuei energia elektrikoa hornitzeko kontratuaren 2. lotea (udal ekipamenduak) ESLEITZEA **Iberdrola Clientes SAU** enpresari – bera izan baita lote honetako lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, hain zuzen, 89 puntu.

Hirugarrena.- Akordioaren laugarren erabakian ezarritakoa betez, Astigarragako Udalaren titulartasuneko kontsumo-puntuei energia elektrikoa hornitzeko kontratuaren 3. lotea (udalaren etxebizitzak) ESLEITZEA **Iberdrola Clientes SAU** enpresari – bera izan baita lote honetako lizitazioan puntuaziorik handiena lortu duena, hain zuzen, 89 puntu.

Laugarrena.- Enpresa esleipendunak, akordioa jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 10 laneguneko epean, baldintza plegu administratiboan 23. klausulan adierazten diren agiriak aurkeztu beharko ditu eta alde zurretiko baldintzak egiaztatu.

Bosgarrena.- Erabaki hau jakinaraztea prozeduran interesatu izan diren guztiei, eta argitaratzea udaleko kontratatzailearen profilean.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aho batez.

8.- EH Bilduren adierazpen instituzional proposamena, autobusaren zerbitzu publikoa indartu eta zabaltzeko, onartzea.

Alkateak adierazpen proposamena aurkeztu izanaren arrazoak eman ditu (Aldundiari zerbitzua hobetzeko idatziz proposamen landuak aurkeztea eta bilerak eskatzea, baina erantzunik ez jaso izana eta irtenbiderik



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

ez eman izana, herritarren keza ugari jaso izana eta beldur izatea emakida berrira arte arazoa ez konpontzea) eta testu hau aurkeztu du onartua izan dadin:

"2024ko irailaren 30ean Astigarraga 7.835 biztanleko kopurura iritsi da. Erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregularraren iraunkorreko zerbitzu publikoaren "Tolosa, N-I eta Buruntzaldea eta Donostiako loturak" izeneko emakida abiarazi zenean (2021eko uztailaren 1ean) baino 526 biztanle gehiago (+%7,2) eta emakida esleitzeko kontratazio espedientea onartu zenean (2018ko uztailaren 24an) baino 1.418 biztanle gehiago (+%22,1).

Gaueko autobus zerbitzuaz (BU40G) gain, Astigarragako herriak, Lurraldebusen kudeatzen dituean hiru autobus zerbitzu linea ditu. Horietako bi Hernani – Astigarraga - Donostia ardatzean (BU12 eta BU13) dihardute eta bestea, aldiz, Astigarraga - Pasaia - Orereta ardatzean (E06). Hiru autobus zerbitzu hauek dira Astigarragak dituen garraio publiko bakarrak, Astigarragak ez baitu ez RENFE edo Euskotreneko tren-zerbitzurik.

Erabilera datuei erreparatuz gero, Gipuzkoako autobus zerbitzuen bidaiari kopurua 2022tik 2023ra %15 hazi zen eta Astigarragako autobus-zerbitzuena, berriz, %27. Astigarragako lineetan 2023an 1.477.750 bidaiari zenabatu zituzten. Beraz, argi dago Astigarragako herritarrek autobus zerbitzu hauen erabilera intentsiboa egiten dutela.

Erabilpena, hortaz, handia da, eta aldi berean gabeziak oso handiak. Astigarragak ez du garraio publiko bidezko zerbitzu zuzenik ospitaleekin eta unibertsitateekin. Astigarraga da Buruntzaldeko udalari bakarra ospitaleetara eta unibertsitateetara autobus zerbitzu zuzenik ez duena, nahiz eta eskualdeko herri txikiak ez izan eta nahiz eta ospitaletatik 5 kilometro eta 6 minutu baino gutxiagora egon.

Astigarrak autobus erabiltzeko apustua egiten badute eta egiten jarraitu nahi badute ere, autobus zerbitzua ez da nahikoa herritarren eskaerari erantzuteko. Gero eta maizago herritarrek autobusean ezin kabituta geltokian geratzen dira, hurrengo autobusari 20 edo 30 minutuz itxaronez. Egoera hori behin eta berriz ari da errepikatzen (bereziki astegunetan goizeko eta arratsko lehen orduetan, larunbat arratsaldetan...) eta, horren eraginez, herritar asko, kilometro bat ibiliz, herriko lehen autobus geltokiraino joan ohi dela autobusean sartzeko aukera izateko. Bada Martuteneraino dBuseko autobusak hartzera oinez joaten denik ere.

Horrela ibiltzea surrealista da. Astigarragan bizi dugun egoera ulertezina da: herritarrek garraio publikoa erabili behar eta nahi dute eta administrazioa ez da gai erantzun duin eta egoki bat emateko. Autobus nahikorik ez, maiztasun eskasa, ekipamendu publiko estrategiko eta oinarritzkoetara (ospitaleak eta unibertsitateak) iristeko ezintasuna... Eta, gainera, Astigarragaren bilakaera demografikoa ikusita, egoera urtez urte okerrera doa eta joango da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Buruntzaldeko emakidaren kontratua 2031ko ekainaren 30ean amaitzen da. Ordura arte itxaron behar dugu zerbitzu berriak jartzeko eta dauden zerbitzuak hobetzeko? Astigarrak ez gaude prest 2031ko ekainaren 30era arte maiztasunak hobetu gabe eta ospitale eta unibertsitateko zerbitzu zuzenik gabe egoteko.

Emakidaren kontratuen mugak jorratuz eta administrazio desberdinen baliabideak eta eskumenen kudeaketa partekatuz soluzioak badaudela argi dago. Adibidez, Donostiako dBus konpainiaren 35. linea Astigarragara luzatu ahalko litzateke eta ospitaletarako eta unibertsitateko lotune zuzena bermatuko litzateke errepideetan autobus bat gehiago bakarrik jarriaz.

Astigarragako Udalak horrelako aukerak eta irtenbideak aztertu ditu eta autobus zerbitzuaren ardura duen Gipuzkoako Foru Aldundiari helarazi dizkio idatziz eta aurrez aurre, baina ez dugu erantzunik jaso.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Horregatik guztiagatik, Astigarragako EH Bilduk Astigarragako Udaleko Osoko Bilkurari eskatzen dio honako adierazpena eta eskaera onartzeko:

- *Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lurraldebusi eskatzea BU13 linearen maiztasuna 15 minutuerokoa izatea lanegunetan eta 20 minutueroakoa asteburu eta jaiegunetan.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lurraldebusi eskatzea BU13 linearen zerbitzua indartzeko goizeko orduetan (7:00-9:00) Donostiarantz eta arratsaldeko lehen orduetan (13:00-15:30) Astigarragarantz.*
- *Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Lurraldebusi eskatzea Astigarragatik ospitaleetara eta unibertsitateetara autobus zerbitzu publiko zuzena bermatzeko, bi aukera hauetakoren bat erabiliz: bata, Lurraldebus-ek linea berri bat jartzea edota dagoeneko badaukan linearen bat berregokitzea; bi, Donostiako dBus autobus-konpainiako 35. linea luzatzea baimentzea eta bere finantzazioan parte-hartzea (baliabideen erabilpenaren ikuspegitik, aukera honek merkeagoa eta egokiagoa dirudi).*
- *Onartutako akordio hauek guztiak hiri arteko autobus zerbitzu publikoen ardura duen Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei jakinaraztea eta euren esparruen baitan arazo honi itenbide egoki bat emateko konpromisoa eskatzea”*

Maria zinegotziak hartu du hitza, eta arazo bat dagoela eta konpondu egin behar dela adierazi ondoren, bere taldea abstenitu egingo dela adierazi du.

Gehitu du ez zaiola gustatu testua nola aurkeztu den, gobernu-taldeak gaiari buruz galdetzen zaien bakoitzean adierazten duela ez dela bere eskumena, baina beren betebeharra dela, eta beste eremu batzuetan emaitzak lortzen dituztela, eta iruditzen zaiela kasu honekin gaia atzeratzen ari direla politikoki erabiltzeko.

Andoni zinegotziak hartu du hitza eta aurpegiratu ondoren orain dela bi legealdi emakida horrela atara izana EAJ-PNV eta PSOeren babesarekin, adierazi du beraiek hasieratik kontra zeudela, eta orain ezin dela ezer egin.

Maria zinegotziak adierazi du Aldundiak aukera bat proposatu duela egungo zerbitzua errefortzatzeko, ondoko udalerraren oniritzia behar duena, eta han ere talde berak agintzen duela.

Alkateak argitu dio aurreko astean proposatu zela autobus artikulatu bat jartzea, baina horretarako Hernaniko autobus geltokiak aldatu behar direla (gaur egungo ibilbidetik autobusak ezin duelako giroa eman), eta Hernanik ezin duela oniritzia eman egun batetik bestera. Eta proposamen hori inprobisazioaz jo du.

Gaineratu du, batetik, proposamen hori ez dela idatziz jaso, udalak horrela egin duenean eta udalarenak proposamen landuak zirenean; eta bestetik, ospitaleko autobus zerbitzuaz ez dela ezer esan.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta adierazi du borroka utzi eta elkarlanera itzuli behar dela. Gaineratu du Astigarragak gero eta biztanle gehiago dituela eta garraio zerbitzu hobea behar duela, egun dagoena errefortzatu egin behar dela eta zerbitzua jarri ospitaletara eta unibertsitatera joateko.

Gaineratu du bere alderdiak mugikortasuna kudeatzen duela, eta argitu nahi izan du beti izan dutela konpromiso handia garraio publikoarekiko, eta erantzun falta egon arren, lantzen ari direla egungo zerbitzuaren errefortzua eta zerbitzu berriak sortzea (ospitalera eta unibertsitatera joateko), baina ez dela erraza. Azaldu duenez, egungo zerbitzua errefortzatzeko egindako proposamenarekin Hernanin bi aparkaleku kendu behar dira, baina hango udalak oraindik ez duela erantzun, egia den arren beharbada ez dutela denbora izan gaia aztertzeko.

Bukatzeke adierazi du ez duela bozkatuko bere taldeak egiten ari den lanaren kontra, eta ondorioz, aurkeztutako testuaren kontra egingo duela, eta udal gobernu taldeari eskatu dio elkarlanera itzultzea.

Alkateak erantzun dio gobernu taldeak elkarlanean aritzeko nahia duela, baina ez dutela erantzunik jaso, eta ezin dela konparatu Aldundiak 8 hilabeteen erantzun ez izana eta Hernaniko Udalak aste batean erantzun ez izana. Eta gaineratu du idatzia ez zutela aurkeztu izango, erantzun bat jaso izan balute esanez lanean ari direla, lan-mahai bat sortzeko eskatuz, edo antzeko zerbait jaso izanez gero; eta poztien direla Aldundia gaia aztertzen badago.

Patxi zinegotziak adierazi du erantzun bat jaso dutela, eta alkateak erantzun dio ospitaleetara eta unibertsitateera joateko zerbitzuaren inguruan ez dela ezer esan, eta beste zerbitzuan autobus artikulatua jartzea ere ez dela bideragarria oraingoz.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta testua moztotzat onartu da, izan baititu aldeko 7 boto (Astigarragako EH Bildu kideena), 3 abstentzio (Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena) eta kontrako boto 1.

9.- Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkeztutako mozioa, Herritarren eta Bizitzaren Kulturaren aldekoa, onartzea.

Alkateak Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkartearen mozioa aurkeztu ondoren, adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, bertan jasotzen diren alderdi batzuk konpartitu arren, ezin dutelako bere horretan onartu. Eta gaineratu du bere taldeak gaiaren inguruko mozioak aurkeztu dituela, eta horietan jasotzen dela beren iritzia.

Maria zinegotziak hitza hartu eta bere taldea ere abstenitu egingo dela adierazi du. Beraiek ere ez dutelako ikusten.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta adierazi du berak kontra bozkatuko duela, ideia partekatu arren, eskaera ez delako errealista.

Bozkatzera ekin zaio eta mozioa ez da onartu, kontrako boto 1 (Udal talde euskal sozialistaren) eta 11 abstentzio (Astigarragako EH Bildu kideena eta Astigarragako EAJ-PNV taldeetako kideena) izan baititu.

10.- Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkarteak aurkeztutako mozioa, Covid-19aren kudeaketaren ebaluazio publikoaren aldekoa, onartzea.

Alkateak Biel Kontsumitzaileen Bizitza elkartearen beste mozio hau aurkeztu du.

Alkateak adierazi du mozio horren atzean jarrera negazionista antzematen dutela, eta bere taldeak kontra bozkatuko duela aurreratu du. Azaldu du ez daudela ados testuarekin, egia izan daitekeelako gauza asko gaizki egin izana, baina beste asko ondo egin zirela, eta egoera horretan txertoa tresna baliagarritzat jo du.

Maria zinegotziak hitza hartu eta beraiek ere kontra bozkatuko dutela adierazi du. Azaldu du beharbada gaia beste modu batean kudeatzerik zegoela, baina adierazi du ez dutela zalantzan jarriko egindako kudeaketa.

Patxi zinegotziak ere azaldu du kontra bozkatuko duela, bere iritziz ere jarrera negazionista baitago. Eta gaineratu du uka ezina dela txertoekin egoerak hobera egin izana.

Bozkatzera ekin zaio eta mozioa ez da onartu, kontrako 11 boto (kide guztiena) izan baititu.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

11.- Informazio, galdera eta eskariak.

a.- 2025eko aurrekontua

Alkateak azaldu du goizean egindako ogasun batzordean aurkeztu dela aurrekontua eta orain 15 egun daudela emendakinak aurkezteko.

Gaineratu du auzoz auzo bilerak antolatu direla proposamenak eta iritzia jasotzeko, eta azaroaren 19ko ogasun batzordean emendakinak aztertu ondoren, azaroaren 26ko osoko bilkurak aurkeztu dela, hasierako izaeraz onartzeko.

b.- DBH eraikitze obra-baimena.

Alkateak adierazi du Jaurlaritzak eskatutako obra-baimena jarraian egingo den tokiko gobernu batzarrean ebaziko dela, mugarri garratzitsutzat jo duena.

Gaineratu du aurreikusten dela urtebete inguru hastea obrarekin, eta 2028-2029 ikasturtean – edo beharbada lehenago – irekitzea.

c.- Partehartze prozesuak

Alkateak udalak martxan dituen bi partehartze prozesuen berri eman du:

Elkargunea +55: 40 bat lagunek hartu zuten parte lehen bileran, eta Aldundiarekin hitz egiten ari dira eguneko zentroaren leku aldaketaren inguruan.

* *Gazteak:* 20 bat lagun hartu zuten parte lehen bileran.

d.- Taxi zerbitzua

Taxi zerbitzuaren inguruko informazioa eskatu du herritar batek.

Alkateak azaldu dio batetik, udalak taxi lizentzia berri bat sortu zuela eta orain hori hornitzeko lizitazioa egin behar dela, eta aurreikusten dela aste santurako emana egotea; eta bestetik, Donostialdeko eremu berezia sortu nahi dela, Aldundira eskaera bideratu dela, eta gutxira baimenduko denaren esperantza dagoela.

Eremu bereziari dagokionez, azaldu dio horrekin Donostialdeko taxilari guztiek aukera izango dutela Astigarragan zerbitzua emateko (365 egunez eta 24 orduz), eta hori egungo sistema (funtzionatzen ez duen Buruntzaldeako eremu berezia) baina erakargarriagoa izan daitekeela.

e., Udal osoko bilkurak grabatzea.

María zinegotziak adierazi du plenoak grabatzea eskatu zuela, aktetan akatsak ez egoteko, eta aurrekontuan horretarako kontusailarik aurreikusi den galdetu du. Alkateak erantzun dio 20.000 euro aurreikusi direla, baina aztertu behar dela, horrek eskatzen duen arretoko ikus-entzunezko guztia berritu



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

behar izatea.

f.- Mugi plataforma

Plataformako kide batek hitza eskatu du. Eta adierazi du autobus-zerbitzuaren egoera txarra dela eta tamalgarritzat jo du mozioaren testua aho batez ez onartu izana.

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2024ko urriaren 29ean.

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko udal-idazkaria

